

ESLEIPEN-IRAGARKIA

2022ko uztailaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren arabera, hona hemen **ALEGRÍA-DULANTZIKO KONTSULTATEGI MEDIKOA HANDITZEKO** obra-kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez esleitzeko deialdia, datu hauek oinarri:

1. Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

- a) Erakundea: **Alegria-Dulantziko Udala.**
- b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
 - 1. Tokia: **Alegria-Dulantziko udaletxea.**
 - 2. Helbidea: **Herriko plaza, 1.**
 - 3. Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4. Telefono-zenbakia: **945-420027.**
 - 5. Telefax-zenbakia: **945-420394.**
 - 6. Posta elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
 - 7. Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.contratacion.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
 - 8. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 6 egun lehenago.**
- c) Espediente-zenbakia: **1186/2022.**

2. Kontratuaren xedea:

- a) Kontratu-mota: **obrak.**
- b) Xedearen deskribapena: **Alegria-Dulantziko kontsultategi medikoa handitzea.**
- c) Gauzatzeko epea: **3 hilabete.**
- e) Luzapen-onarpena: **ez.**
- f) CPV (nomenklatura-erreferentzia): **452151008.**

3. Izapidetza eta prozedura:

- a) Izapidetza: **arrunta.**
- b) Prozedura: **ireki sinplifikatua.**
- c) Esleipen-irizpideak: **proposamenak aztertzeko eta eskaintzarik onena aukeratzeko, hainbat esleipen-irizpide hartuko dira kontuan, kalitate-prezio harremanik onenaren arabera.**

A. Irizpide automatikoki zenbakarriak handienetik txikienera puntuatuko dira:

- a) Eskaintako preziorik txikiena: 80 puntu

Puntuaziorik handiena preziorik merkeenari emango zaio, eta gainerakoa formula honen arabera zenbatetsiko da:

$$EB = (ezt / aez) \times P$$

Non,

EB = Eskaintzaren balorazioa

ezt = Eskaintako zenbatekorik txikiena

aez = Aurkeztutako eskaintzaren zenbatekoa

P = Esleitutako gehieneko puntuazioa

- b) Obraren berme-epearen hedapena: 20 puntu

Gehieneko puntuazioa gutxieneko berme-epea URTEBETEZ (1) luzatzen duen eskaintzak lortuko du, eta gainerako eskaintzak zuzeneko proportzionaltasunaren bidez puntuatuko dira, betiere aipatu epea hobetuz gero. Berme-epea urtebetez luzatzea eskaini ezean, ez da punturik eskuratuko.



Puntuazioari dagokionez, berme-epea BOST (5) urtez baino gehiagoz luzatzea eskaintzeak ez du punturik emango. Ondorioz, obren berme-epea bost urtez baino gehiagoz luzatzea eskaintzen duen eskaintza orok hogeit hamar puntu lortuko ditu atal honetan. "P" lortutako puntuazioa izanik.

$P = \frac{\dots\dots\dots 20 \times \text{puntuatu beharreko eskaintako berme-epea} \dots\dots\dots}{\text{Puntuaziorik handiena eskuratu duen berme-epea}}$

4. Esleipen-aurrekontua:

Kontratuaren gehieneko prezioa: **65.268,63 euro**. BEZa ehuneko 21: **13.706,41 euro**.

5. Ezarri beharreko bermea:

Behin betikoa: **ehuneko 5**.

6. Kontratistaren baldintza zehatzak:

Enpresariaren **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** bide hauetakoren baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:

- a) Urteko negozio-bolumena, edo, bestela, urteko negozio-bolumena kontratuari dagokion eremuan, azken hiru ekitaldien barruan ekitaldirik onenekoak, enpresariaren jarduerak sortu edo hasi ziren eta 160.000 euroko edo gehiagoko eskaintzak aurkezteko daten arabera.
- b) Egokia den kasuetan, 150.000 euroko edo gehiagoko erantzukizun zibileko aseguru dagoela aditzera emateko frogagarria.

Obra-kontratuetan, enpresariaren **kaudimen teknikoa** bide hauetakoren baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:

- a) Azken hiru urteetan Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean C taldean, 3 azpitaldean, sailkatutako obra edo lan nagusien zerrenda, haien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa zein pribatua, adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakundea izanez gero, egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; subjektu pribatua izanez gero, berriz, hark emandako ziurtagiri bidez, edo, ziurtagiririk izan ezean, enpresariaren adierazpen bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organismoari.
- b) Enpresak obrak egiteko dituen teknikariak edo erakunde teknikoak, enpresan integratuta egon ala ez.

Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean C taldean edo 3 azpitaldean izena emanda egoteak haren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kontratatze gaitasun teknikoa egiaztatuko ditu.

7. Eskaintzen edo parte hartzeko eskabideen aurkezpena:

- a) Aurkezteko epemuga: **20 egun natural, iragarki hau kontratugilearen profilean argitaratzen eman eta hurrengo egunetik aurrera.**
- b) Euskarria: **elektronikoa.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1. Bulegoa: **erregistro orokorra.**
 - 2. Helbidea: **Herriko plaza, 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
- d) Lizitatzailak eskaintza indarrean izan beharreko epea: **3 hilabete.**

8.- Eskaintza-irakiera:

- a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**
- b) Helbidea: **Herriko plaza, 1.**



- c) Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Eguna eta ordua: **proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun balioduna.**

Alegria-Dulantzin, 2022ko uztailaren 21ean
ALKATEA

Izpta.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA